


# Super PEPO eta klementina



**K**aixo. Pepo naiz, eta ziur nago zuetariko askok ezagutzen nauzuela. Azken egunotan lo asko egiten ari naiz. Kosta egiten zait esnatzea, hain gustura nago ohean! Baina ikastetxean ere ongi pasatzen dut. Jolastorduan nire lagunekin jolasten dut harrapaketara, ezkutaketara eta kromoetara.

Aurten Karmela andereñoa batuketak eta kenketak egiten erakusten ari zaigu. Irakurtzen ere erakusten digu, baina oso zaila da; izan ere, halako batean letrak bata bestearen atzean jartzen dira eta hitzak azaltzen dira, hitz mordo bat! Magikoa da irakurtzen ikastea. Eta, gainera, aste honetan planeta, natura, animalia eta landareei buruzko gauza harrigarriak ikasten ari gara.

Lan asko egin behar dudanez, ondo elikatzen ari naiz... mmmm. Beno, hau duela gutxi ikasi dut. Ba al dakizue nork irakatsi zidan? Bada, Klementina nire lagunak. Esango dizuet nola ezagutu nuen:

Joan den egunean, ikastetxetik atera eta Jotam-eko Superheroien akademiara joan aurretik, Julianen dendaren aurrean geratu nintzen. Neska eta mutil askokerostendute hanaskaria. Txokolatezkopalmerak, kremazkoopilak, gozokiaketab. Gantxito poltsa bat eta opil bat eskatzen ari nintzenean, soinu arraro bat entzun nuen. Fruta-kaxaren barruan mandarina bat zegoen negarrez.





**E**zin duzue imajinatu nola egiten zuen negar! Ez nekien oso ondo zer egin.

- Zer egiten du superheroi batek horrelako kasuetan? -galdetu nion neure buruari.

Bat-batean gogoratu nintzen joan den urtean “entzun eta behar duenari lagundu egin behar zaiola” erakutsi zigutela, eta oso gogokoa nuela irakasgai hura. Orduan, mandarinarengana hurbildu nintzen, entzun eta zer gertatzen zitzaion jakiteko:

- Kaixo, Pepo naiz, eta zu, nor zara? Zein da zure izena -galdetu nion.

- Klementina da nire izena, eta mandarina bat naiz, ez al duzu ikusten? -erantzun zidan negarrez.

- Bai, noski, baina bat ez da egunero topatzen hitz egiten duten mandarinekin. Ezta ni bezalako superheroi bat ere. Baina, zer gertatzen zaizu? Zergatik egiten duzu hainbeste negar? Zuku guztia agortuko zaizu -esan nion.

- Negar egiten dut zeren neska-mutil guztiak ikastetxetik irtendakoan Julianen dendara joaten dira, eta beti litxarreriak eta opiltxoak erosten dituzte, eta inoiz ez gaituzte gu aukeratzen. Hain gozoak egonik! Freskagarriak gara, gozoak eta C bitamina daukagu, neguan ez katarrorik harrapatzeko eta mukirik ez izateko. Eta zer esaten didazu gure laranja koloreaz? Ez al da alaia eta dibertigarria? Gainera, azala kentzen badidazu eta tolestu, oso usain ona dut -esan zuen Klementinak, mandarina izateaz harro.

- Egia esan, nik ez nekien horrelako ezer -erantzun nion- baina orain badakit, eta agian lagun zaitzaket.

Superheroien akademiara bidean, Klementinak esandakoaren inguruan pentsatzen aritu nintzen. Arrazoi handia du. Ikastetxeko neska-mutilek ez dute inoiz mandarinarik hartzen askaritan. Zergatik?


Klementinari laguntzeko moduren bat aurkitu behar nuen. Buruari eragin nion, eta, hara, zerbait otu zitzaidan. Ikaragarritzko burutazioa izan nuen.

**H**urrengo egunean jauzi bat eman eta jaiki nintzen ohetik. Ez zen beharrezko izan ama esnatzera etortzea. Urduri nengoen, ikastetxera joateko ordua noiz iritsiko, nire egitasmoa abian jartzeko.

Jolastordua iritsi zenean, eta neska-mutil guztiak patioan jolasean zeudenean, zaburik altueneko txirrista batera igo nintzen, eta nire lagun guztien arreta erakarri nuen. Zirkoko pailazoek bezala hiru pilotekin esku-jokoak edo malabarismoak egitea zen superheroien akademian ikasitako gauzetariko bat. Umeei asko gustatzen zaie, eta oso ondo pasatzen dute horrelako gauzeekin. Besteei zoriontsu egitea da superheroi batentzat irakasgairik garrantzitsuena eta zailena.

Baina ez nituen pilotak erabili, ohikoa den bezala, Klementina eta bere bi lagun baizik. Ume guztiak harrিতa begiratzen zuten airean nola zebiltzan ikusita; asko dibertitu ziren eta gogotsu txalotu zuten. Orduan mandarinek eta gainerako frutek dituzten gauza onen berri eman nien. Klementinak eurei buruz esandako guztia, eta ondo elikatzeak duen garrantziaz ere hitz egin nien.

Baina jolastordua amaitzear zegoen, eta klasera itzuli behar zen. Orduan hartu nituen hiru mandarinak, plastikozko poltsatxo batean sartu, eta patioko zakarrontzian bota nituen. Neska-mutil guztiak harri eta zur geratu ziren. Ez zuten ulertzen nola egin nezakeen horrelako zerbait.





**U**lertu zuten mezua! Atera nituen mandarinak zakarrontzitik, eta esan nien:

Atentzioa eman dizue, ezta? Bada horixe da egunero jangelan gertatzen dena. Ez al zarete konturatu zenbat janari botatzen dugun zakarrontzira “gustatzen ez zaigulako” edota behar duguna baino askoz gehiago zerbitzitzen dugulako, edo...? Pentsatu al duzue inoiz zenbat haur dauden jatekorik gabe?

- Eta zertarako balio du? -esan zuen Martinek-, azken batean, guri sobratzen zai-guna ezin diegu haiei eman, oso urruti daude-eta.
- Baliteke ezin eman ahal izatea, baina platerean jartzen diguten guztia jatea, haiei laguntzeko modu bat izan daiteke -esan nuen.

Orduz gero, ikastetxeko haur guztiak hobeto jatera ohitu ziren, eta askarirako fruta eskatzen zuten.

Albiste hauek Superheroien akademiara iritsi ziren, eta hurrengo egunean, klasera joan nintzenean... ustekabeko galanta topatu nuen!

Korrika, irribartsu eta solasean sartu nintzen, Felipe nire lagunarekin, beti bezala, eta, bat-batean, han zegoen! Ezin nuen sinetsi! Superheroia-aren kapa gorria lortu nuen! Zoragarria!

- Pepo, lortu duzu! esan zidan irakasleak. Oso harro nago zurekin. Orain adi-adi ibili behar duzu, begiak eta belarriak ondo irekita. Askotan, erdiestea baino zailagoa da daukagunari eustea.

Arratsalde horretan nire traje urdina, kapa gorria eta botak jantzi eta inoiz baino kontentuago irten nintzen kalera, besteei laguntzeko prest.

Eta zuek, nire lagunok, ez ezazue inoiz ahaztu egiazko superheroiak besteengan pentsatzen eta behar dutenean laguntzen dieten haiek direla.

